

ETORKIZUNA ERAIKITZEN PROIEKTUA

2018ko martxoan, Eusko Jaurlaritzak Gazteen Gipuzkoa izeneko ekimen bat aurkeztu zuen. Ekimenean parte hartzeko, Etorkizuneko Gipuzkoaren inguruan proiektu bat lantzeko proposamena egin zien probintziako hainbat ikastetxeri. Beasaingo Txindoki institutuko 20 ikaslek osatu genuen proiektu hau ekainean zehar.

Hasieran, proiektuaren bidez zer adierazi nahi genuen adostu genuen denon artean. Aurkezpenerako bideo bat prestatzea erabaki genuenez, talde txikitan banatu ginen lana errazteko. Proiektu honen bidez gaur egungo egun bat etorkizuneko beste batekin alderatu nahi genuen, hemendik 20 urtera Gipuzkoa nolakoa nahi dugun adieraziz, hau da, gaur egun aurki ditzakegun akats edo arazoak konpontzeko proposamena eginez. Talde txiki bakoitzak arlo bat aukeratu zuen (garraioa, kutsadura, aisialdia...) eta 1-2-1 teknika erabiliz, guztion ideiak partekatuz arazoak eta horiek konpontzeko proposamenak adostu genituen. Hilabete osoan zehar lanean aritu ostean, amaieran bideoa osatu genuen. Hasieran ez zen erraza izan, ez geundelako horrelako proiektu handietan lan egitera ohituta, baina emaitza ikusita lan eta esfortzu guztiak merezi izan duela uste dugu.

Urrian zehar ikastetxe guztiek prestatutako lanak aurkeztu dituzte Donostiako "Etorkizuna Eraikiz" gunean. Beasaingo ikasleak azaroaren 22an izan ginen bertan, beste bi ikastetxerekin batera. Taldeko lau ikaslek azaldu zuten gure proiektua.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu hau posible egin duten guztiei eta hilabetean zehar lagundu ziguten irakasleei. Guretzat oso aberasgarria izan da, eta horrelako proiektu gehiago egin beharko lirakekeela pentsatzen dugu.